

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### LEGUTIOKO UDALA

#### Behin betiko onartzea udal liburutegiaren zerbitzuaren arautegi orokorra

2018ko irailaren 26an egindako ohiko bilkuran hasierako onarpena eman zitzaion Legutioko udal liburutegiaren zerbitzuaren arautegi orokorrari. Jendaurrean egon den bitartean aurkako erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero, behin betiko onartzen da. Beraz, oso-osorik argitaratzen da, indarrean jar dadin, apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 70.2 artikuluan xedatzen dituenaren ondorioetarako.

#### Legutioko udal liburutegiaren zerbitzuaren arautegi orokorra

##### Lehenengo titulua Xedapen orokorrak

##### 1. artikulua

Arautegi honen xedea da Legutioko udal liburutegiaren erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak arautzea, bai eta bertako instalazioak eta gainerako zerbitzuak nola erabili behar dituzten ezartzea ere.

##### 2. artikulua

Legutioko Udalak arautegi honetan ezartzen dena argitzeko, aldatzeko edo garatzeko xedapenak edo ebazpenak eman ditzake, instalazioak behar bezala erabil daitezten. Instalazioetan lan egiten duten pertsonak oharrak eta argibideak adierazi ahal izango dituzte.

Arautegi hau eta liburutegiaren araudia (egutegiak eta ordutegiak...) herritarren esku egongo dira liburutegian bertan eta Udalaren web orrian.

##### Bigarren titulua Zerbitzuaren erabiltzaileak

##### 3. artikulua

Arautegi honen ondorioetarako honako hauek dira erabiltzaileak: liburutegia erabiltzen duten pertsona guztiak, bertako txartela eduki zein ez eduki (txartela ezinbestekoa da mailegu zerbitzua erabiltzeko).

##### 4. artikulua

Zerbitzu batzuk erabiltzeko (esaterako, mailegua zerbitzua) erabiltzaile txartela eduki behar da.

##### Hirugarren titulua Zerbitzuaren erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak

##### 5. artikulua

Hauexek dira erabiltzaileen eskubideak:

a) Liburutegiak eskaintzen dituen zerbitzu guztiak erabiltzea (bakoitza bere araudiarekin bat etorritik), maileguaren ingurukoak (mailegu pertsonala, kolektiboa, liburutegi artekoa edo digitala) ez beste guztiak; izan ere, mailegu zerbitzuak erabiltzeko ezinbestekoa da irakurle txartela edukitzea.

- b) Nahi dituzten erreklamazio guztiak aurkeztea.
- c) Arautegi honen ale bat eskatzea. Hala ere, arautegia herritarren esku egongo da Udalaren web orrian.
- d) Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko kidea izateak berekin dakartzan gainerako eskubide guztiak.

#### **6. artikulua**

Erabiltzaile guztiek betebeharrak hauek dituzte:

- a) Instalazioak erabiltzen dituztenean arautegi honetan eta indarreko araudian xedatzen dena eta liburutegiko langileen oharrak betetzea.
- b) Instalazioak eta ekipamendua behar bezala erabiltzea. Arduragabekeriak edo txarto erabiltzearen ondorioz gertatzen diren kalteak egilearen kontura izango dira.
- c) Gertatzen diren gorabehera guztien berri ematea liburutegiko langileei.
- d) Beste erabiltzaileak eta beren eskubideak errespetatzea, eta langileak ere bai.
- e) Euskadiko Irakurketa Publikoko Sareko kidea izateak berekin dakartzan gainerako betebeharrak guztiak.

### **Laugarren titulua**

#### **Instalazioetara sartzeko eta atxikitako guneak erabiltzeko arauak**

#### **7. artikulua**

Liburutegira Kultur Etxeko guztientzako eremuetatik sartzen da. Eremu horietan gizabidez jokatu behar da: ezin da oihuka egin, ez lasterka ibili, ez jolasean aritu.

#### **8. artikulua**

Arau orokor gisa, debekaturik dago liburutegiko instalazioetan animaliak sartzea; nolahi ere, ikusmen urritasuna duten pertsonen txakur gidariak sar daitezke.

Arau hau aldi baterako indargabetu ahal izango da ezinbesteko arrazoiak daudenean edo kasu berezietan. Udalak onartu egin beharko du.

#### **9. artikulua**

Liburutegiko instalazioetan:

- a) Ezin da jan, ez edan, ez erre.
- b) 6 urtetik beherako umeak pertsona heldu arduradun batekin egon behar dira.
- c) Isilik egon behar da, zerbitzua ondo ibil dadin.

### **Bosgarren titulua**

#### **Erabiltzaile txartela**

#### **10. artikulua**

Erabiltzaile txartela eskuratzeko:

- a) Liburutegira joan behar da eta inprimakia bete. 18 urtetik beherakoak guraso batekin edo legezko tutorearekin joan behar dira, adostasuna adierazi behar baitute.
- b) Kasu batzuetan erabiltzaile kolektiboak egon daitezke: elkarteak, ikastetxeak...

#### **11. artikulua**

Legutioko liburutegi publikoko txartela Euskadiko liburutegien sareko liburutegi guztietan erabil daiteke.

**Seigarren titulua  
Mailegu zerbitzua****12. artikulua**

Mailegu zerbitzua erabiltzeko ezinbestekoa da irakurle txartela.

**13. artikulua**

Mailegua pertsonala izango da, hau da, txartelaren titularra den pertsonak egingo du.

**14. artikulua**

Maileguak eta horien luzapenak egiteko (aldiak, ale kopurua...) Eusko Jaurlaritzako liburutegi zerbitzuak Euskadiko sare publikorako finkatutako prozedura bera erabiliko da.

Halaber, maileguan hartutakoak itzultzen atzeratzeagatik ezarriko diren zehapenak liburutegi zerbitzuak finkatutakoak berak izango dira.

Euskadiko liburutegien sareko maileguen inguruko informazio osoa herritarren esku dago [www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus) atariko Kultura eta Kirola ataleko Liburutegi Publikoak azpiataleko dokumentu honetan: "Euskadiko irakurketa publikoko sareko liburutegietarako sareko mailegu zerbitzurako arautegia".

**15. artikulua**

Dokumentuak liburutegiko mahaian itzuli behar dira.

**16. artikulua**

Maileguan hartutako dokumentu bat galdu edo narriatuz gero, erabiltzaileak ordezkua ekarri beharko du.

**17. artikulua**

Liburutegiko dokumentu batzuk ezin dira mailegatu.

**Zazpigarren titulua  
Internet zerbitzua****18. artikulua**

Liburutegiak doako wifi sarea dauka. Pasahitza liburutegiko langileek emango dute, eskatzaileak 16 urte baino gehiago dauzkala egiaztatutakoan. Adin horretara heltzen ez bada, adostasun egokia aurkeztu beharko du.

**19. artikulua**

1. WIFI sarea edo denentzako ordenagailuetako bat erabili nahi duten 16 urtetik beherakoek amak, aitak edo legezko tutoreak sinatutako adostasuna aurkeztu beharko dute. 7 urtetik beherako umek inolaz ere ezin izango dute erabili ordenagailurik, ondoan pertsona heldu arduraduna eduki ezean.

2. Adostasun agiria liburutegiko mahaiko langileek emango dute; sinatzailearekin NANarekin edo AIZrekin aurkeztu behar da.

**20. artikulua**

Ordenagailuak erabiltzeko arauak liburutegiaren erabiltzaileen esku egongo dira liburutegian bertan eta Udalaren web orrian.

**21. artikulua**

Ordenagailuak banaka erabiliko dira; hau da, saio bakoitzean erabiltzaileak baino ez du edukiko Interneten ikusitakoaren erantzukizuna.

**22. artikulua**

Debekatuta dago ordenagailuetan norberaren programak instalatzea, eta instalatuta daudenak aldatzea ere bai.

**Zortzigarren titulua  
Zehapenen araubidea****23. artikulua**

Arautegi honetako arauen ez betetzea arau haustea izango da, eta hausleari zehapena ezarriko zaio.

**24. artikulua**

Liburutegiaren arduradunak neurriak ezarri ahal izango ditu norbaitek zerbitzuaren ordena nahasten duenean: agiraka egin ahal izango dio liburutegian behar bezala portatzen ez denari, eta kasu batzuetan baita instalazioetatik bota ere.

**25. artikulua**

1. Erabiltzaileei honako jokabide hauengatik egin ahal izango zaie agiraka:

a) Isiltasuna haustea eta liburutegiko giroa nahastea.

b) Dokumentuak, ordenagailuak eta gainerako material guztiak gaizki erabiltzea.

c) Liburutegi barruan jan, edan edo erretzea.

d) Beste erabiltzaile bati edo langile bati errespetua galtzea (imintzioekin edo hitzez) edo eraso egitea.

e) Instalazioen funtzionamendu egokia nolabait galaraztea.

2. Erabiltzaileak liburutegitik bota daitezke edo beren eskubideak kendu ahal zaizkie honako jokabide hauengatik:

a) Langileen agirakei jaramonik ez egitea.

b) Arauak behin eta berriz ez betetzea.

3. Adingabeko bat liburutegitik botaz gero, zehapenaren berri eman behar zaio beraren aitari, amari edo legezko tutoreari.

4. Hutsegite horiei nolako zehapena ezarri aztertzean, kontuan hartuko da erantzukizuna alda dezakeen inguruabar astungarririk, aringarririk edo salbueslerik dagoen eta beste noizbait gauza bera gertatu den. Nolanahi ere, Udalak uste badu erantzukizun penala edo zibila dagoela, akzio judiziala hasiko da.

5. Materiala galtzeagatik edo gaizki erabilia kalte egiteagatik diru zehapena ezarri ahal izango da, 2. puntuko zehazpenaz gainera. Zenbatekoa egindako kaltearen araberakoa izango da.

Legutio, 2018ko azaroaren 22a

*Alkatea*

**NEKANE GARAIGORDOBIL BENGOA**